

## FUNTZESKO ELKARTEAK

Proiektu honen bazkide garrantzitsuena Durangoko udaletxea izango da. Alde batetik, udaletxeak proiektua herrian martxan jartzeko baimena emango digu eta horrekin batera, gure proiektua aurrera eramateko klabeak diren zenbait gauza udaletxearenak izango dira; adibidez: kontainerrak edota urtero eskatuko dugun dirua gure gastuak ordainzten laguntzeko (5.000€ inguru). Eta beste aldetik, guk herritarrei egindako birziklapenagaitik eskainitako beherapenak arlo publikoetan udaletxeak jarrita izango dira. Adibidez, garraio-publikoan edota kiroldegian izandako beherapenak udaletxeak finkatuko ditu. Udaletxeaz aparte, gure enpresak beste alde batetik laguntza jasoko du nahiz eta hau garrantzia gutxiagokoa izan azken batean aportazio txiki bat delako. Durangon dauden hainbat supermerkatu (Eroski, BM, Dia eta abar), zenbait eskola (San Jose Jesuitak ikastetxea, Landako eskola, Maristak ikastetxea eta abar) eta herriko zenbait komertzio gehiago, gure bazkideak izango dira ere, haien plastiko soberakinak ekarriko dizkigutelako (kantitate handiagoan, enpresa nagusiak direlako).

